"*SAGARDUN PARTZUERGOA*"ren ESTATUTUAK

Astigarragako Udala
IDAZKARITZA SAILA

Astigarragan, bi mila eta hamabosteko uztailaren 21ean

Kontxi Urdampilleta Santamaría, Astigarragako Udaleko ordezko idazkari naizen honen aurrean,

AGERTU DIRA:

Jesús Mª Santos Anabitarte jauna, adinez nagusia, Hernaniko biztanlea, jakinarazpeneko helbidea Astigarragako Foru plaza 13n duena eta Nortasun Agiria 15.972.319-S duena.

José Angel Goñi Garín jauna, adinez nagusia, Astigarragako biztanlea, helbidea Oialume Bidea, 63 duena eta Nortasun Agiria 15.924.058-P duena.

Ibon Jaramillo Goñi jauna, adinez nagusia, Astigarragako biztanlea, helbidea Aiotzategi kalea 20-ezkerra- 5. B duena, eta Nortasun Agiria 72.489.802-N duena.

Juantxo Zuaznabar Santacruz jauna, adinez nagusia, Astigarragako biztanlea, helbidea Kale Nagusia, 10-1.F duena eta Nortasun Agiria 15.907.019-N duena.

Irati Zabala Mendizabal andrea, adinez nagusia, Astigarragako biztanlea, helbidea Kale Nagusia, 72-3.D duena eta Nortasun Agiria 72.468.152-M duena.

Pako Iraola Ibarbia jauna, adinez nagusia, Astigarragako biztanlea, helbidea Navarra Oñatz kalea, 11-1. B duena, eta Nortasun Agiria 15.928.037-P duena.

Agustín Urreaga Irizar jauna, adinez nagusia, Astigarragako biztanlea, helbidea Foru Enparantza, 3 duena, eta Nortasun Agiria 15.118.178-W duena.

Ainara Otaño Izagirre andrea, adinez nagusia, Astigarragako biztanlea, helbidea Santio Zeharra, 17-1. eskubia duena, eta Nortasun Agiria 72.469.948-F duena.

Antton Arka Montoro jauna, adinez nagusia, Oiartzungo biztanlea, helbidea Herri Ondo etxadia, 14-1. ezkerra duena, eta Nortasun Agiria 15.912.314-V duena.

Asier Zabaleta Izagirre jauna, adinez nagusia, Astigarragako biztanlea, helbidea Tomas Alba kalea 2 duena, eta Nortasun Agiria 44.139.714-T duena.

PARTE HARTU DUTE:

Jesús Mª Santos Anabitarte jaunaK, HELBIDEA Foru Enparantza 13 zenbakian duen eta IFK P2009400I duen **ASTIGARRAGAKO UDALAREN** izen eta ordezkapenean, bertako alkatea denez. Gainera, Idazkariak luzatutako ziurtagiriak dioenez, ekintza honetarako bereziki ahalmendua dago Udalbatza osoak ekainaren 13an eginiko bilkuran hala erabakita. Ziurtagiri hori dokumentu honekin batera doa 1. ERANSKIN gisa.

Astigarragako Udala
IDAZKARITZA SAILA

José Angel Goñi Garín jaunak, helbidea Oialume bidea 63an eta IFK G20805826 duen **GARLIA, ASTIGARRAGAKO SAGARDO ELKARTEAren** izen eta ordezkapenean. Entitate hau elkarteen erroldan inskribatuta dago G10412/2003 zenbakiaz. Entitateko Lehendakari gisa dihardu eta gainera, Idazkariak luzatu eta Lehendakariaren oniritzia duen ziurtagiriak dioenez, ekintza honetarako bereziki baimenduta dago Zuzendaritza Batzordeak apirilaren 5ean eginiko bilkuran hala erabakita.

Ibon Jaramillo Goñi jaunak, helbidea Aiotzategi kalea 20-ezkerra-5.B duen eta IFK G20411963 duen **XAGU XAR ASTIALDI TALDEA** elkartearen Izen eta ordezkapenean. Entitate hau elkarteen erroldan inskribatuta dago AS-G-03117/1992 zenbakiaz. Entitateko Idazkari gisa dihardu eta gainera, Idazkariak luzatu eta Lehendakariaren oniritzi aduen ziurtagiriak dioenez, ekintza honetarako bereziki baimenduta dago Batzordeak azaroaren 8an eginiko bilkuran hala erabakita.

Juantxo Zuaznabar Santacruz jaunak, helbidea Kale Nagusia, 72-3.D duen eta IFK G20510962 duen **ZIPOTZA ELKARTEAren** izen eta ordezkapenean. Entitate hau elkarteen erroldan inskribatuta dago AS/G/5021/94 zenbakiaz. Entitateko idazkari gisa dihardu eta gainera, lehendakariordeak luzatutako ziurtagiriak dioenez, ekintza honetarako bereziki baimenduta dago Batzordeak Apirilaren 1ean eginiko bilkuran hala erabakita.

Astigarragako Musika Eskola
norberto almandoz mendizabal
20115 ASTIGARRAGA

Irati Zabala Mendizabal andreak, helbidea Kale Nagusia, 72-3.D eta IFK G20503348 duen **NORBERTO ALMANDOZ MUSIKA ESKOLA** elkartearen izen eta ordezkapenean. Entitate hau elkarteen erroldan inskribatuta dago AS-G-04891/1994 zenbakiaz. Entitateko kudeatzailea gisa dihardu eta gainera, Idazkariak luzatutako ziurtagiriak dioenez, ekintza honetarako bereziki baimenduta dago Batzordeak Maiatzaren 3an eginiko bilkuran hala erabakita.

Pako Iraola Ibarbia jaunak, helbidea Nabarra Oñatz kalea 11-1.B eta IFK G20051702 duen **ASTIGAR EUSKAL OHITURAZALEEN ELKARTEAren** izen eta ordezkapenean. Entitate hau elkarteen erroldan inskribatuta dago AS-RPG-00722 zenbakiaz. Entitateko batzorkide gisa dihardu, eta gainera, lehendakariak eta idazkariak luzatu duten ziurtagiriak dioenez, ekintza honetarako bereziki baimenduta dago Zuzendaritzak Uztailaren 1ean eginiko bilkuran hala erabakita.

SOCIEDAD RECREATIVA
GURE-IZARRA
Tel. 943 55 10 11
ASTIGARRAGA

Agustín Urreaga Irizar jaunak, helbidea Foru Enparantza 3 eta IFK G20486361 duen **GURE IZARRA ELKARTEAren** izen eta ordezkapenean. Entitate hau elkarteen erroldan inskribatuta dago AS.R.P.G.00062 zenbakiaz. Entitateko bazkide gisa dihardu, eta gainera, lehendakariak luzatutako ziurtagiriak dioenez, ekintza honetarako bereziki baimenduta dago Zuzendaritzak Azaroaren 18an eginiko bilkuran hala erabakita.

GARLIA SAGARDO ELKARTEA

JUR ASTARBE GALPARSORO jaunak , helbidea Mendiola Baserria. Txoritokieta bidea 13 20115 ASTIGARRAGA eta NAN 72.464.338D duen **GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEAren** izen eta ordezkapenean. Entitate hau elkarteen erroldan inskribatuta dago 20/025 zenbakiaz. Entitateko ordezkari gisa dihardu, eta gainera, luzatutako ziurtagiriak dioenez, ekintza honetarako bereziki

Xaguxar Astigarraga

baimenduta dago Zuzendaritzak 2015eko ekainaren 3an eginiko bilkuran hala erabakita.

Antton Arka Montoro jaunaK, helbidea Oiartzungo Herri Ondo etxadia, 14-1. ezkerra eta IFK G20834388 duen **GOLDEA HERRI KIROL ELKARTEA**ren izen eta ordezkapenean. Entitate hau elkarteen erroldan inskribatuta dago G/10988/2004 zenbakiaz. Entitateko idazkari gisa dihardu, eta gainera,lehendakariak luzatutako ziurtagiriak dioenez, ekintza honetarako bereziki baimenduta dago Zuzendaritzak Maiatzaren 21ean eginiko bilkuran hala erabakita.

Asier Zabaleta Izagirre jaunaK, helbidea Tomas Alba kalea 2 eta IFK G20335543 duen **MUNDARRO ELKARTEA**ren izen eta ordezkapenean. Entitate hau Euskal Herriko kirol elkarteen erroldan inskribatuta dago 154 zenbakiaz. Entitateko lehendakari gisa dihardu, eta gainera, lehendakariak luzatutako ziurtagiriak dioenez, ekintza honetarako bereziki baimenduta dago Zuzendaritzak Martxoaren 3an eginiko bilkuran hala erabakita.

ADIERAZTEN DUTE

I.- Sagardun partzuergoa, bi mila eta hiruko apirilaren 29an eratu zela, Astigarragan sagardoa soziokulturalki sustatzeko helburuarekin.

II.- Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartzeak, partzuergoaren estutatuak eraldatzea eskatzen duela.

III.- Adierazitako adierazita eta, bete beharreko ordezkaritza betez,

ERABAKI DUTE

Sagardun partzuergoaren estatutu berriak onartzea. Beraz, partzuergoa erabaki honen ondoren oso-osorik transkribatuko diren estatutuen bidez arautuko da.

LEHEN KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

1.- *Sagardun* Partzuergo mistoa da, irabazi asmoko xederik gabea, izaera publiko zein pribatu desberdinetako entitateez osatua. Legezko nortasun propioa eta jarduteko gaitasun osoa izanik, legeek eta Estatutu hauek ezartzen dizkioten mugak bakarrik izango ditu.

2.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hogeigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bitartez egindako aldaketa aintzat hartuta, Sagardun Partzuergoa Astigarragako Udalari atxikita dago.

2. ARTIKULUA

Partzuergoaren xedea Astigarragan eta inguruan sagardoa soziokulturalki sustatzea izango da. Eta xede hori lortzearren, honako jarduerak garatu ditzake:

a) Sagardoarekin lotutako gaien artxibo, liburutegi, hemeroteka eta antzeko zerbitzuak sortzea.
b) Sagardoaren historiarekin zerikusia duten ondasun historikoak edo kulturalak jasotzea, katalogatzea eta artatzea.
c) Sagardoarekin lotutako agiri literarioak, ikonografiakoak eta informatikoak bildu, antolatu eta artatzeko beharrezkoak diren programak, sistemak, artxiboak eta abar sortzea.
d) Sagardoa hobeto ezagutzera eta behar duen sustapen soziokulturala ematera bideratutako ikastaroak, batzarrak, jardunaldiak eta mintegiak antolatzea eta bultzatzea.
e) Baliabide materialak hedatzea, bidezko datu-base, argitalpen, erakusketa eta antzeko jardueren bidez.
f) Bidezko azterketak eta ikerlanak egitea eta hirugarren pertsonek edo entitateek burutzen dituzten ikerlanetan ere parte hartzea.
g) Sagardo Berriaren Eguna, Santa Ana eguneko Sagardo Eguna eta Sagar Uzta antolatzea, sagardoaren sustapen soziokulturalarekin zerikusia izan dezaketen beste hainbat ekitaldi bezalaxe.
h) Plataforma digitala eta gizarte-sareak kudeatzea, Partzuergoaren jarduerak zabaltzeko.
i) Sagardoaren produkzio, merkaturatze eta abarren prozesu desberdinekin lotutako prestakuntza-ikastaroak antolatzea edo babestea.
j) Sagardoaren kulturarekin lotutako esperientzia eno-ludiko-hezitzaileak sortzea, bultzatzea eta/edo merkaturatzea, dela sagardotegian barruan, dela kontsumitzaile potentzialak egon daitezkeen bestelako tokietan.
k) Astigarragan sagardoaren inguruan egin edo egiten diren azterlanak, gidak eta abar eratzea, argitara ematea eta banatzea, eta horien antzekoak edo osagarriak izan daitezkeen jarduerak burutzea.
l) Sagardoaren sustapen-lanetan diharduten beste entitateei lankidetza ematea.
m) Era guztietako argitalpenak egin eta banatzea, esate baterako, aldizkariak, egunkariak, bideoak, eta abar.

n) Erakunde publiko zein pribatuei aholkularitza ematea.
o) Astigarragako sagardoaren sustapen soziokulturalaren lagungarri izan daitezkeen bekak eta bestelako laguntzak ematea.
p) Partzuergoaren xedea betetzen lagun dezaketen ekimen pribatu zein publikoekin lankidetzan jardutea.
q) Erakunde publiko edota pribatuekin bidezko itunak, hitzarmenak eta abar sinatzea, sagardoaren sustapen soziokulturalaren mesederako jarduerak burutu ahal izateko.
r) Sagardoetxea Museoa kudeatzea.
s) Aipatu jardueren antzeko beste hainbat, Partzuergoaren xedea lortzera bideratuta badaude.

3. ARTIKULUA

Partzuergoak elkarte izaera duenez, segidan adieraziko diren arauak beteko ditu honako estatutu hauetan aurreikusi ez den orotan: Astigarragako Udala partaide izatearen ondorioz, aplikagarriak gerta daitezkeen Toki Erregimeneko arauak; erregimen orokorreko elkarteen arautegia, batez ere Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legea, eta Elkartzeko Eskubidea arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa.

4. ARTIKULUA

Partzuergoak Astigarragako (Gipuzkoa) Udaleko Kultur Etxean izango du behin-behineko egoitza baina hori, Batzorde Zuzendaritzak erabakitzen duen unean bertan aldatu ahal izango da.

5. ARTIKULUA

Partzuergoak, oraingoz behintzat, iraupen mugagabea izango du.

BIGARREN KAPITULUA.- GOBERNUA ETA ORDEZKARITZA

6. ARTIKULUA

1.- Batzorde Zuzendariari dagokio Partzuergoa gobernatu eta administratzea.

2.- Bere eginkizunak betetzeko burujabea izango den Batzorde Zuzendari horretan, kide diren erakundeetako ordezkari bana egongo da. Batzorde Zuzendariko kideen boto kopurua honako proportzio honi jarraiki banatuko da:

- Astigarragako Udalak (% 44,98)
- Garliak eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak (% 35)
- Gure Izarra elkarteak (% 2,86)
- Xagu Xar Astialdi Taldeak (% 2,86)
- Norberto Almandoz Musika Eskolak (% 2,86)
- Astigar Euskal Ohiturazaleen elkarteak (% 2,86)
- Mundarro Elkarteak (% 2,86)
- Zipotza Kultur Elkarteak (% 2,86)
- Goldea Herri Kirol Batzordeak (% 2,86)

3.- Garia elkarteak eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak kide bana izango dute Batzorde Zuzendarian eta urtero ehuneko orokor hori (%35) banatu beharko dute, aurreko ekitaldiko abenduaren 1ean elkarte bakoitzari atxikita zeuden Sagardunen lurralde-eremuko sagardotegien kopuruaren arabera. Horretarako, abenduko lehen hamabostaldian bi elkarteek elkarte bakoitzean zenbat sagardotegi biltzen diren egiaztatzen duen ziurtagiri bana helarazi beharko dute, eta Batzorde Zuzendariak, abenduko bigarren hamabostaldian, hurrengo ekitaldian elkarte bakoitzari zenbateko ehunekoa dagokion zehaztuko du.

4.- Batzorde Zuzendariak lehendakaria, lehendakariordea eta ordezkariak izango ditu. Batzordekideen kopurua partzuergoan sartzen edo irteten den entitate kopuruaren arabera aldatuko da.

5.- Batzorde Zuzendaria eta ordezkoak (kide bakoitzeko ordezko bat) dagozkien organoek hautatuak izango dira eta, bestelakorik adierazten ez den bitartean, horiek izango dira Batzorde Zuzendariko ordezkari bakarrak. Ordezkoek ordezkatzen dituzten ordezkari titularren eskubide berberekin jardungo dute.

7. ARTIKULUA

Sagardun partzuergoko Batzorde Zuzendariaren lehendakari kargua Astigarragako Udalak beteko du.

Lehendakariorde-kargua sagardogileen elkarteren bateko ordezkariak beteko du beti, eta urtero txandaka aldatu egin beharko da.

Partzuergoko idazkaria Udalak izendatuko du.

8. ARTIKULUA

Batzorde Zuzendariak honako eginkizunak izango ditu:

a) Ondasun eta eskubideen erosketa eta erabilpena onartzea, obra eta zerbitzuen kontratazioa bezalaxe.
b) Urtero Partzuergoaren aurrekontua, ekitaldi sozial bakoitzeko kudeaketa eta urteko kontuak onartzea.
c) Estatutu hauen garapenerako egiten diren araudiak onartzea, baita etorkizunean araudi eta estatutu horietan egin daitezkeen aldaketak ere.
Entitate publiko zein pribatu ororekin adosten diren erabakiak, hitzarmenak eta itunak onartzea.
e) Zuzendaria izendatzea eta bere kargutik kentzea.
f) Partzuergoaren antolakuntza egituratzeko egiten den proposamena onartzea.
g) Batzordeak eratzea eta horiek desegiteko erabakia hartzea.
h) Sail edo proiektu jakin batzuetarako zuzendariak izendatzea eta beren kargutik kentzea.
i) Entitatea desegiteko eta likidatzeko erabakia hartzea.
j) Programa, plangintza edota proiektuen ildo nagusiak onartzea.
k) Partzuergoan entitate berrien sarrera onartzea.
l) Estatutu hauen arabera dagokion beste hainbat eginkizun.

9. ARTIKULUA

1.- Batzorde Zuzendariko lehendakariak honako eginkizunak izango ditu:

a) Bilkuretarako deialdia agintzea.
b) Batzorde Zuzendariko bilkuretan buru izatea, eztabaidak zuzenduz eta, berdinketa kasuetan, kalitatezko botoaren bidez erabakiz.
c) Batzorde Zuzendariari dagozkion gobernu-zereginak bultzatzea eta normal funtziona dezan bermatzea.
d) Batzorde Zuzendariak hartzen dituen erabakiak betetzea eta betearaztea.
e) Idazkariak eratzen dituen aktak eta ziurtagiriak baimentzea.
f) Betetzen duen karguaren berezko zereginak eta estatutu hauen arabera dagokion beste hainbat eginkizun.

2.- Lehendakari-kargua betetzen duenak alor guzti-guztietan ordezkatuko du Partzuergoa, bai epai gaietan, baita bestelakoetan ere; hau da, administrazio eta jurisdikzio guztietan, hala nola pertsona fisiko eta juridiko, publiko zein pribatu guztien aurrean ordezkatu ahal izango du aurrez ahalorderik egin beharrik gabe.

3.- Lagun horrek, ahalorde berezi baten bidez, ordezkatze-ahalmen hori besteren esku utz dezake, guztiz edo hein batean, eta pertsona horiek ez dute derrigor Batzorde Zuzendariko kide izan beharrik.

10. ARTIKULUA

Lehendakariaren eginkizunak bere ordezkariaren edo ordezkoaren bidez betetzea ezinezkoa gertatzen den kasuetan, lehendakariordeak bere gain hartuko du lehendakariaren zeregin hori.

11. ARTIKULUA

1.- Partzuergoko idazkariak honako eginkizunak izango ditu:

a) Batzorde Zuzendariak burutzen dituen bilkuretan idazkari lanak betetzea, batzar horietako aktak eginez eta erabakitakoaren fede emanez.
b) Bidezko ziurtagiriak luzatzea.
Partzuergoko liburuak eta erregistroak ordenan eramatea eta zaintzea.
d) Lehendakariari eguneko gai-zerrenda zehazten eta deialdiak egiten laguntzea.
e) Betetzen dituen karguaren berezko zereginak eta estatutu hauen arabera dagokion beste hainbat eginkizun.

2.- Idazkaria ez dagoen kasuetan, Batzorde Zuzendariko kiderik gazteenak beteko du kargu hori.

3.- Batzorde Zuzendarian, idazkariak ez du boto eskubiderik izango.

12. ARTIKULUA

1.- Batzorde Zuzendaria gutxienez hiru hilabetetik behin bilduko da.

2.- Aparteko bilkurak ere burutu ditzake lehendakariak edota Batzordeko kideen gutxienez heren batek hala eskatzen duenean.

3.- Lehendakariari dagokio Batzorde Zuzendariaren bilkuretarako deialdia egitea. Horren jakinarazpena gutxienez zazpi eguneko aurretiaz igorriko da eguneko gai-zerrendarekin batera. Premia bereziko arazoak daudenean, lehendakariak bere kabuz edota Batzordeko kideren baten eskariaz aurkeztutako gaiak edo proposamenak aztertu ahal izango ditu Batzorde Zuzendariak, baldin eta eskari hori bilkura hasi baino gutxienez berrogeita zortzi orduko aurretiaz egin bada.

4.- Batzorde Zuzendaria baliozki eratuta geratuko da, deialdirako eskakizunak ez bete arren, kide guztiak bertan badaude eta aho batez hala erabakitzen badute.

5.- Batzorde Zuzendaria baliozki eratzeko quoruma kide guztien gehiengo absolutua izango da.

6.- Lehen deialdian bidezko quoruma osatzen ez bada, Batzorde Zuzendaria bigarren deialdian eratuko da eta hori lehen deialdirako ezarrita dagoen unetik ordu-erdira egingo da. Kasu horretan, batzordea eratutzat joko da bertan dagoen kide kopurua edozein delarik ere.

7.- Batzorde Zuzendariak zuzendariaren esku utz dezake bere ahalmen edo eskumen bat edo beste, kontuak eta aurrekontuak onartzea eta Partzuergoaren kudeaketa arruntaz kanpo geratzen diren egintzak izan ezik.

8.- Erabakiak idatziz ere har daitezke, Batzorde Zuzendaria osatzen duten kide guztiek prozedura hori onartzen badute behintzat.

13. ARTIKULUA

1.- Batzorde Zuzendariak zuzendari bat izendatuko du, batzordeak berak ematen dizkion irizpideei jarraiki Partzuergoko kudeaketa eta administrazio arloa burutu dezan. Zuzendari horrek, bereziki, honako zeregin hauek hartuko ditu bere gain:

a) Kudeaketa arruntari dagozkion komunikazioak eta agiriak sinatzea.
b) Tramitazio soileko gaiak konpontzea.
c) Ondasun eta zerbitzuen kontratazioak prestatzeko ekintzak burutzea.
d) Ordainketak agintzea, bere eskumenaren mugak gainditu gabe, eta kobratu beharrekoak kudeatzea.
e) Langileen buruzagitza egitea.
f) Derrigorrez hartu beharreko eta gerorako utzi ezin diren neurriak hartzea eta, berehala, Batzorde Zuzendariari neurri horien berri ematea.
g) Partzuergoaren kontabilitatea begiratzea.
h) Betetzen dituen karguaren berezko zereginak eta estatutu hauen arabera dagokion beste hainbat eginkizun.

2.- Izendapen-erabakiak bere baitan bilduko ditu: kargua betetzeko beharrezkoak diren ahalmenen ordezkaritza, karguaren epemuga eta ezinbestez dagokion gainerako guztia.

3.- Partzuergoko zuzendariak ahotsez baina botorik gabe har dezake parte Batzorde Zuzendariaren bilkuretan.

Astigarragako Udala
IDAZKARITZA SAILA

14. ARTIKULUA

Batzorde Zuzendariko karguak dohainik beteko dira. Hala ere, Batzorde Zuzendaria osatzen duten entitateen ordezkariek beren eginkizunen jardunean egindako eta behar bezala frogatutako gastuak berreskuratu ahal izango dituzte, gastu horiek Batzorde Zuzendariak agintzen duen eran eta indarrean dagoen legeriak ezartzen duenaren arabera egin badira behintzat.

15. ARTIKULUA

Zuzendariaren kargua, ordea, ordaindua izango da. Batzorde Zuzendariari dagokio zuzendariaren zerbitzuekin lotutako kontratu-baldintzak onartzea.

16. ARTIKULUA

Batzorde Zuzendariko kideen kargu-uztea honako kasu hauetan gertatuko da:

a) Batzordeko kide den entitatea desegiten denean.
b) Partzuergoan baja ematean.
c) Bere kargua dagokion arduraz ez betetzeagatik. Kasu horretan, Batzorde Zuzendariko kideen gehiengoak onartu beharko du kargu-uztea.
d) Ebazpen irmoaz.
e) Karguari uko egiten dionean.

Astigarragako Musika Eskola
norberto almandoz mendizabal
20115 ASTIGARRAGA

17. ARTIKULUA

Batzorde Zuzendariak gai berezietarako batzordeak izenda ditzake, sail edo proiektu jakin batzuetarako zuzendariak bezalaxe.

SOCIEDAD RECREATIVA
GURE-IZARRA
Tel. 943 55 10 11
ASTIGARRAGA

18. ARTIKULUA

Batzordeko edozein kideren eskariari erantzunez, Batzordeko lehendakariak hainbat pertsona gonbidatu ditzake Batzorde Zuzendariaren bilkuretara, aholkularitza eman dezaten eta horiek ahotsez baina botorik gabe jardungo dute.

19. ARTIKULUA

Batzorde Zuzendariaren erabakiak onartzeko gehiengo soila nahikoa izango da, segidan aipatuko diren gaietan izan ezik, kasu hauetan Batzorde Zuzendaria osatzen duten kideen bi hereneko gehiengoa beharko baita; honako hauetan, hain zuzen:

a) Estatutuak aldatzeko.
b) Arautegiak onartzeko edota aldatzeko.
c) Partzuergoan kide berriak onartzeko.
d) Partzuergoko kideren baten baja-baldintzak ezartzeko.
e) Partzuergoa desegin eta likidatzeko.

GARLAN ARTARDO ELKARTEA
ELKARTEA

HIRUGARREN KAPITULUA.- ARAUDI EKONOMIKOA

20. ARTIKULUA

Partzuergoaren ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat etorriko da; hau da, abenduaren 31n bukatuko da.

21. ARTIKULUA

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hogeigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bitartez egindako aldaketa aintzat hartuta, erantsita dauden herri-administrazioari dagokion aurrekontuaren, kontabilitatearen eta kontrolaren arloko araubidea bete beharko du partzuergoak, betiere Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitakoari jarraiki. Nolanahi ere, urteko kontuen ikuskapena egingo da eta ikuskapen hori Partzuergoa atxikita dagoen Administrazioaren kontrol-organoaren erantzukizun izango da. Partzuergoak aurrekontuetan parte hartu beharko du eta atxikita dagoen Administrazio publikoaren kontu orokorrean sartuta egon.

22. ARTIKULUA

1.-Partzuergoak badu bere ondare propioa baina ez du irabazi-asmoko xederik.

2.- Partzuergoaren ondarea diru-truke edo doan eskuratzen dituen ondasun eta eskubide guztiek osatuko dute. Partzuergoaren helburuak lortu ahal izateko baliabide ekonomikoak honako hauexek izango dira nagusiki:

a) Partzuergoaren ondareak ematen dituen etekinak, errentak, irabaziak edo onurak.
b) Eskubide osoko kideek urtero izaera arruntaz egiten dituzten ekarpenak. Eta urteko ekarpen horiek eraketa-egintzan bakoitzak zegokion proportzioan egindako ekarpenen kopuru berekoak izango dira gutxienez.
c) Partzuergoko zerbitzu-onuradunen zenbatekoetatik ondorioztatzen diren diru-sarrerak, halakorik izanez gero behintzat.
d) Jasotzen dituen dohaintzak, jaraunspenak eta ondareak eta beste edozein tituluren bidez eskura dezakeen ondasun oro.
e) Entitate publikoek zein pribatuek eta partikularrek eman ditzaketen subentzioak eta laguntzak.
f) Legezko xedapenez edo hitzarmenen batek hala ezarrita, Partzuergoari legozkiokeen beste guztiak.

23. ARTIKULUA

Partzuergoak edozein kontzeptupean bereganatzen dituen diru-sarrerak Partzuergoaren helburuak lortzeko erabiliko dira, hau da, kideen artean ez dira inolaz ere banatuko.

24. ARTIKULUA

1.- Partzuergoak berak merkataritza jarduerak edo profesionalak burutu ahal izango ditu, jarduera horiek Partzuergoaren helburuak lortzera bideratuta badaude. Era berean, indarrean dagoen legeriak aurreikusten dituen kudeaketa-era guztiak erabili ahal izango ditu bere helburuak lortzearren.

2.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren arabera, Partzuergoak ezin izango du edozein motatako ente berririk erosi, sortu edo haien sorreran parte hartu, betiere sailkapen sektoriala edozein izanik ere kontabilitate nazionalari dagokionez.

LAUGARREN KAPITULUA.- ARAUDI DOKUMENTALA

25. ARTIKULUA

Partzuergoak honako liburu hauek eraman beharko ditu gutxienez:

a) Inbentarioen eta Urteko Kontuen liburua.
b) Aurrekontuen liburua.
c) Liburu egunkaria.
d) Batzorde Zuzendariaren Akten liburua.
e) Zerrendan aipatu ez badira ere, indarrean dauden xedapenek derrigorrez agintzen dituzten gainerako liburu guztiak.

26. ARTIKULUA

Derrigorrezko liburuak behar bezala koadernatuko dira, orriak dagokien eran ipiniz. Hala ere, informatikaren bidez edota egokitzat jotzen diren beste hainbat prozedurei jarraiki egindako idazpen eta oharpenek ere balio osoa izango dute. Horiek ere gero behar den hurrenkeran koadernatuko dira, derrigorrezko liburuak osa daitezen.

27. ARTIKULUA

Batzorde Zuzendariak burutzen duen bilkura bakoitzeko akta egingo du idazkariak eta, horretan, honako datuak adieraziko dira gutxienez:

a) Bilkura zein ordu, egun, hilabete eta urtetan burutu den.
b) Bertaratu diren kideen izen-abizenak.
c) Aztertu diren gaiak eta beroriei buruz hartu diren erabakiak.
d) Bozketen emaitza.
e) Eragindako botoak edo salbuespenak.

BOSGARREN KAPITULUA.- KIDE ETA ENTITATE LAGUNTZAILE BERRIAK ONARTZEA

28. ARTIKULUA

1.- Batzorde Zuzendariari dagokio irabazizko xederik ez duten eta Partzuergoa eratu zuteneko entitateen xedeekin bat datozen interes publikoko helburuak

Astigarragako Udala
IDAZKARITZA SAILA

lortu nahi dituzten erakunde publikoak edota entitate pribatuak onartu ahal izateko arauak ezartzeko eskumena. Laguntzaileen partaidetza-erregimenak ere arauzko garapena beharko du.

2.- Entitate berriak onartzeko, honako izapide hauek beteko dira:

a) Eskaera interesatuta dagoen entitateak egingo dio idatziz Batzorde Zuzendariko lehendakariari.
b) Eskaera hori Batzorde Zuzendariak onartuko du, estatutu hauetako 19. artikuluan aurreikusi den gehiengoak hala erabakitzen badu behintzat.

3.- Edozein kidek utz dezake Partzuergoa. Eta lotura hori desegiteko nahikoa izango da interes hori duen entitateak bere arautegi propioaren arabera hala erabakitzea eta aipatu erabakia Batzorde Zuzendariari jakinaraztea.

4.- Partzuergoan eskubide osoa duten kideekin batera, Batzorde Zuzendariak Partzuergoaren helburuak lortzen lagun dezaketen bestelako pertsonak edo entitateak ere onar ditzake partzuergoko kide laguntzaile gisa baina ez dute boto eskubiderik izango, ezta betebehar ekonomikorik ere.

SEIGARREN KAPITULUA.- PARTZUERGOA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

29. ARTIKULUA

Partzuergoa Batzorde Zuzendariak egokitzat jotzen duen une berean desegingo da. Nolanahi ere, deseginda geratuko da honako gorabehera hautakoren bat gertatzen denean:

a) Gizarte helburua betetzea nabarmen ezinezkoa denean. Partzuergoak urteko programak betetzeko beharrezkoak dituen diru-laguntzak ez lortzea gizarte helburua betetzeko ezintasun nabarmentzat hartuko da.
b) Gobernu organoaren jarduna eteten denean eta ondorioz, partzuergoaren funtzionamendua guztiz eragozten denean.
c) Jarraiko bi ekitalditan galerak izan direnean.
d) Indarrean dagoen legeriak aurreikusitako beste arrazoiren bat gertatzen denean.

Astigarragako Musika Eskola
norberto almandoz mendizabal
20115 ASTIGARRAGA
SOCIEDAD RECREATIVA
GURE-IZARRA
Tel. 943 55 10 11
ASTIGARRAGA

30. ARTIKULUA

Partzuergoa desegiteko erabakia likidazio-programa baten bidez arrazoituko da; erabaki horrek, beraz, epe likidatzailea jarriko du abian. Horrela bada, Partzuergoa desegiten den une berean, Batzorde Likidatzailea izendatu beharko du Batzorde Zuzendariak.

31. ARTIKULUA

Bestelako irizpideren bat jarraitzeko arrazoi berezirik ez badago behintzat, honako irizpide hau jarraituko da likidazio prozesuan: Partzuergoak, ahalik eta gehien bat, betebeharrak ordaindu ondoren, partzuergoko kide diren entitateei itzuliko dizkie beroriek jarritako giza baliabideak eta materialak. Partzuergoko kide diren entitateez aparteko giza baliabideei dagokienean, berriz, kontratuak deuseztatuko dira indarrean dagoen legeriak agintzen

Xaguxar Astigarraga

duenaren arabera. Partzuergoko kide diren entitateez aparteko baliabide materialak, aldiz, Batzorde Likidatzaileak besterenganatuko ditu.

32. ARTIKULUA

Likidatzaileek Partzuergoaren deuseztatze-akta egingo dute, eta horretan, likidazioaren azken balantzea jasoko da.

ZAZPIGARREN KAPITULUA.- GIZA BALIABIDEAK

33. ARTIKULUA

1.- Kontsortzioak lan erregimenean jardungo duen pertsonala kontrata dezake *Sagardun Partzuergoan* zerbitzuak eman ditzan, baina langile horiei ez zaie aplikatuko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak ezartzen duena.

2.- Partzuergoan lanean ari diren langileak funtzionario edo lan-kontratudun izan daitezke, baina kide diren Administrazioetako lanpostuak berresleitzeko prozesu batetik soilik etor daitezke. Langile horien erregimen juridikoa atxikitako Administrazio publikoarena izango da, eta ordainsariei dagokienez, atxikitako Administrazioan postu horren baliokide diren lanpostuetarako ezarritako ordainsariak ezin izango dituzte gainditu.

ZORTZIGARREN KAPITULUA.- KONTRATATZEKO ERREGIMENA

34. ARTIKULUA

Partzuergoak, besterik ezean, Zuzenbide Pribatuak agintzen duena betez egingo ditu kontratuak. Partzuergoa sektore publikoan bildutako botere esleitzailea den aldetik, kontratuak esleitzeko garaian azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legea aplikatuko zaio. Zehazki, erregulazio harmonizatuari atxikita ez dauden kontratuak esleitzeko garaian honako xedapen hauek aplikatuko dira:

Esleipena, publizitate, lehia, gardentasun, isilekotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen pean egingo da.

Batzorde Zuzendariak barne-eremuan nahitaez bete beharreko jarraibideak onartuko ditu; jarraibide horietan, kontratazio-prozedurak arautuko dira, betiere aurreko idatz-zatian aipatutako printzipioen eraginkortasuna bermatzeko moduan, eta kontratua ekonomikoki eskaintza onena aurkezten duenari esleituko zaiola ere bermatu beharko da. Arautzen dituzten kontratuen esleipen-prozeduretan parte hartzeko interesa duten guztien eskura jarri behar dira jarraibide horiek, eta entitatearen kontratatzaile-profilean argitaratu behar dira.

Obretarako 50.000 eurotik gorako eta hornidura nahiz zerbitzuetarako 18.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuen lizitazioari buruzko informazioa entitatearen kontratatzaile profilean argitaratuz,

publikotasun printzipioaren betekizunak erantzuntzat joko dira, kontrataziorako barne-jarraibideek hedapenerako beste bide batzuk, ordezkoak edo gehigarriak, ezartzearen kalterik gabe.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA.- ERABAKIAK INPUGNATZEA ETA ARBITRAJEA

35. ARTIKULUA

Partzuergoak indarrean dirauen bitartean edota likidazio prozesuan zehar, partzuergoa eta bere kideen artean edota kideen artean bertan gerta daitekeen arazo oro ekitatezko arbitrajeaz erabakiko da, Arbitrajeko abenduaren 23ko 60/2003 Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz. Dena den, gatazkak ebazteko arbitraje-prozedura horrek ez du baldintzatuko Legeak premiazko izaerako prozedura bereziak arbitratzeko duen ahalmena, ezta arbitraje-mugak aurreikusten dituzten kasuak erabakitzekoa ere.

Arbitrajea burutzeko beharrezkoak diren dokumentu osagarriak ematera behartuta dauden kideek, halakorik gertatuz gero behintzat, ematen den arbitraje-laudoa bete beharko dute ezinbestez.

36. ARTIKULUA

Partzuergoko Batzorde Zuzendariak hartutako erabakiak pribatuak izango dira. Hortaz, eta estatutu hauetan arbitraje gaietan egiten dituen aurreikuspenak egiten dituela ere, Partzuergoaren jarduera edota funtzionamenduarekin zerikusia duten gai guztiak ezagutzeko eskubidea dagokio jurisdikzio zibilari. Erregimen honetatik salbuetsita geratuko dira, indarreko legeriaren arabera, administrazio-bidean eta administrazioarekiko auzi-bidean berrikusi behar diren akordio guztiak eta, bereziki, kontratazio-arloan errekurtso berezia jartzeko aukera ematen duten akordioak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Partzuergoaren barne funtzionamendua Euskaraz gauzatuko da eta hori horrela izan dadin bermatzeko, langileak kontratatu behar direnean aintzat hartuko da hizkuntzaren ezagupen maila, bai idazteko baita hitz egiteko ere. Era berean, Partzuergoaren irudi korporatiboarekin lotutako alderdietan Euskarari emango zaio lehentasuna, antolatzen diren ekitaldien ahozko zein idatzizko jardueran bezalaxe.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Partzuergoari dagokionez, Estatutu hauetan aurreikusitako aurrekontu- eta kontularitza-erregimen berria 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharko da, betiere Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen seigarren xedapen iragankorrari jarraiki.

Astigarragako Udala
IDAZKARITZA SAILA

Eginbidea. Partzuergoaren Estatutuak agiri honetan adierazi diren baldintzetan onartu dira, Astigarragako Udaleko idazkari naizen honen aurrean, eta orri guztietan sinatu dut Astigarragan, 2015eko uztailaren 21ean. Fede ematen dut.

Astigarragako Udala

Garlia, Astigarragako Sagardo Elkartea elkartea

Astigarragako Musika Eskola
norberto almandoz mendizabal
2015 ASTIGARRAGA

Xagu Xar Astialdi taldea

Zipotza elkartea

Norberto Almandoz Musika Eskola

Astigar Euskal Ohiturazaleen elkartea

SOCIEDAD RECREATIVA
GURE-IZARRA
Tel.: 943 55 10 11
ASTIGARRAGA

Gure Izarra elkartea

Gipuzkoako Sagardogileen elkartea

Goldea Herri Kirol elkartea

Mundarro Elkartea

ASTIGARRAGA
ELKARTEA